

HARREMAN PERTSONALAK, SOZIALAK, FAMILIARRAK, AFEKTUZKOAK ETA SEXUALAK

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

HARREMANAK IKASTETXEAN

Adimen emozionala, afektuzko hezkuntza, gaitasun soziala, adimen soziala, etab. berrikitako terminoak dira. Gure ikasleen hezkuntzan, ikaskuntzan eta garapen integralean harremanetarako eta emozioetarako alderdiak gogora ekartzeaz gainera sendotu egiten dituzte. Gure mundua, funtsean eta oinarrian, harreman eta elkarrekintzen mundua da, elkar ezagutzen dugun, harremanetan jartzen garen eta jarduten dugun mundua.

- ▶ Pertsonak eta pertsonen arteko harremanak autonomia eta garapen integralerako, ongizaterako, osasunerako eta bizitza osorako hezkuntzako ikaskuntza eta prozesu ororen gunea dira, haren materia nagusia eta inguru zedarritzatzailea.
- ▶ Curriculumeko edukiak, prozedurazko trebetasunak eta baliabide teknologikoak bizitzaren funtsezko ikaskuntzaren zerbitzura dauden beharrezko tresnak dira: harremanetakoak, haren fazeta eta esparru guztietan.

Ikasleen behaketa eta anotazio sistematikoak aukera ematen du berdintasunaren ikuspuntutik estereotipaturik dauden eta bizitzaren ikaskuntza funtsezkoaren arrakasta modu negatiboan baldintzatzen duten eskolako portaerak eta harremanak identifikatzeko. Hau da, berdintasunerako hezteko, batera hezteko landu beharreko alderdiak eta arloak: nesken eta mutilen arteko harremanak, neska-mutilen eta irakasleen arteko harremanak, ikastetxeko bizikidetzako eta diziplinako gatazkak, nesken eta mutilen arteko harreman sentimentalak, familia-ko harremanak.

IKASLEAK ETA IRAKASLEAK

Nesken kopurua mutilena baino askoz ere handiagoa denean izan ezik, irakasleek beti uste izaten dute ikastaldean mutilak neskak baino gehiago direla. Oro har, horren arrazoiak hauexek dira:

- ▶ Mutilak gehiagotan hartzen dute hitza, protagonistagoak dira eta espazioa gehiago erabiltzen dute. Mutilak neskek baino gehiago eta maizago hitz egin eta parte hartzen dute.
- ▶ Salbuespenetan izan ezik, mutilak keinuak egiten dituzte, mugitzen dira eta albokoaren hizketa eten egiten dute, elkarrekin solasean hasten dira eta neskek baino oihu gehiago egiten dute.
- ▶ Irakasleek ez badute mutilen joera monopolizatzaile hau aktiboki geldiarazten, mutilak berenganatzen dituzte irakasleekiko harremanak eta "bien arteko" zerbait bilakatzen da eta neskak ikusle huts bihurtzen dira.
- ▶ Egoera honen eta eskolako harreman hauen aurrean neskak kexatzen dira, pixkana-pixkanaka baztertu eta isilarazten dituzten horien aurrean.



etiketarik ez, eskerrik asko

Irakasleek ongi aski dakite zeinen arriskutsua den etiketa jakinak jartzea eta **horrek zer ondorio txar duen ikasleengan**. Esate baterako, ikasturte hasierako "iragarpen autobetea", zeinak esperientzia profesionalean oinarri harturik, bederatzi hilabete lehenago iragartzen duen etorkizunean neskek eta mutilek ikasketetan zer errendimendu eta emaitza izanen duten. Hala ere, izan badira beste etiketa batzuk, oso bereganaturik ez ditugunak eta, ondorioz, arriskutsuagoak izan daitezkeenak. Neskei eta mutilei ordezkaritza, zuzendaritza, botereko eta erabakiak hartzeko arloetako presentziari, parte-hartzeari eta lidergoari dagokionez sozialki esleitzen dizkiegun **genero etiketak** dira.

genero etiketak

Genero etiketa hauek esaten digute pertsonak beren sexua dela-eta gizarte-
an jarduteko baldintzaturik daudela. Uste sozial horien arabera, neskek eta mutilek, izatez, oso **interes, zaletasun eta gaitasun desberdinak** izanen lituzkete esparru sozialetako, politikoe-
tako, ekonomikoetako, laboraletako, kulturaletako... botererako eta erabakiak hartzeko esparruetan parte hartzeko.

Denen artean lortzen dugu honako honetan ere iragarpena betetzea. Nesken eta mutilen hezkuntzak eta sozializazioak lortzen dute batzuek zein besteek aipatutako etiketa sozial horiek baimendutakoari eta haiztatik espero denari erantzutea. Gorputza, sentimenduak, harremanak, gatazkak eta haiek konpontzea, maitasuna, sexualitatea eta abar ukitzen dituzten etiketak. Ildo horretan, hezkidetzak **eti-**

ketarik eta antietiketarik gabeko hezkuntza da.

gorputz etiketatuak

Gure nesken eta mutilen gorputza eta gorputzarekin duten harremana eta gorputzarekin egiten dutena desberdina da neskengan eta mutilengan.

Neskek, oro har, joera hauek dituzte:

- Gorputz pasiboak garatzen dituzte erakartzeko itzarotearen bidez; muskulu aldetik gutxi garatutako gorputzak dira, mugimendu gutxikoak (maiz jantziekin eta oinetakoekin ere zailduak).
- Muturreko argaltasun eta moteltasun eredu fisikoak jarraitzekoa.
- Gorputza medikazioarekin eta ebakuntza kirurgikoekin aldatzekoa...
- Bere gorputzarekin harreman ezezkorra izatekoa (lotsatu egiten dira, haren kontra borrokatzen dira...).
- Tratu txarrak norberari ematearen eta eritasunaren (anorexia...) mugan jartzekoa.

Mutilek, oro har, joera hauek dituzte:

- Jardunaren bidez gorputz aktiboak garatzen dituzte jardunarekin erakartzeko; muskulu aldetik garatuak eta mugimendu handikoak dira indarra eta presentzia erakusten duten eredu fisikoekin (oro har jantziek eta oinetakoek lagunduak).
- Beren gorputza ariketaren, medikazioaren... bitartez modelatzekoa.
- Beren gorputzarekin harreman baikorra izatekoa (hartaz harro daude eta/edo bultzatzen dute).
- Arriksu ia suizidako mugetan ibiltzekoa (kirol edo trafikoko istripuak, droga-mendekotasunak...).

gorputz modelatuak

Hau guztia ez da emakumezkoen eta gizonezkoen desberdintze sexualetik ondorioztatutako alde biologiko morfologiko eta funtzionalen ondorioa. Nesken eta mutilen gorputzaren berezko baldintzatzaile hau ez da zati txiki bat besterik, **beren gorputzak modu askoz erabakigarriagoan bustitzen eta modelatzen dituzten askotariko osagai sozialei** gehitzen zaiona. Hain zuzen ere, askoz ere eragin handiagoa dute une historiko eta kultural bakoitzeko modaren ondorio

GATAZKAK BIZIKIDETZAN ETA DIZIPLINAN

Ikastetxe gehienetan bizikidetzako eta/edo diziplinako gatazkarik gehienak mutilek sortutakoak dira. Ez mutil guztiek sortutakoak, mutil taldeek baizik. Neskek sortutakoak, berriz, askoz gutxiago dira eta oso bakan gertatu ohi dira.

Errealitate honen aurrean, neskek esaten dute, oro har, irakasleek honela erantzuten dutela:

- ▶ Kasurik gehienetan ikastalde osoaren (neska-mutilen) gaineko ardura hartzen du eta modu indiskriminatuan jarduten du.
- ▶ Irakasleek neskak sistematikoki erabiltzen dituzte "mutilak neutralizatu edo kontrolatzeko", batez ere mutil urduri, artega eta zalapartatsuen artean euste-horma moduan estrategikoki jarritz. Hori gertatzen denean maiz mutilen komentarioak, eragozpenak eta askotariko "txantxak" jasan behar izaten dituzte.

Jakina; erantzun instrumental hauek bereziki neskak zigortzen dituzte, gatazkarik sortu ez badute ere, eta sintomatologia ezabatzen ahalegintzen dira, baina ez egoeraren sustraia, zeinak gure ikasleek ikasten duten maskulinitasunarekin zerikusia duen. Hau da, mutila edo gizonetzkoa izatea zer den uste dutenarekin.

GERO ETA MASKULINOAGOAK DIREN NESKAK ETA MUTILAK

Hezkidetzak (baterako hezkuntza) hezkuntzaren ezinbesteko giltzarria da eta, hartara, hezkidetzak proposatzen du genero-estereotipoak eta eredu maskulino eta femenino tradizionalaren eskola-praktika ez-ugal-korra gainditzea. Gaur egun eskola mistoan ez da aldaketa hau gertatzen ari eta eredu maskulinoaren unibertsalizazioa edo orokortzea da nagusi. Haren ezaugarriak eta balioak ideia hobezin modura hedatu eta aurkeztu egiten dira mutilentzako nola nescentzako.

Horrek berarekin dakar eredu femeninoaren balioek eta jarrerak prestigioa eta balioa galtzea eta eredu horren ezaugarriak eta balioak beharrezkoak edo nahi ez direnak bezala hartzea. Ondorioz:

- ▶ Oro har, eskolaren antolaketa eta jarduna diseinatzen da mutilak gogoan direla eta, gero, gehitu egiten da neskek, nahi badute, antolaketa eta jardun horretan parte har dezaketela, hartara egokitu daitezkeela edo hartan sar daitezkeela.
- ▶ Ongi ikusita dago "neskak mutilak bezalakoak izatea, baina ez gehiegi". Neskei animoa emateaz gainera, txalo egiten zaie, esate baterako, futboleko jokatzeko badute, beren ikaskide mutilen ohituretan, zaletasunetan eta moduetan integratzen badira, mutilen adiskide badira, etab. Hori guztia zerbait positibo eta on bezala hartzen da nescentzat.
- ▶ Baina oso gaizki ikusita dago "mutilak neskak bezalakoak izatea, ezta zertxobait ere; hori azkena litzateke". Inoiz ez da bultzatzen edo txalotzen mutilek nesken jolasetan, ohituretan, zaletasunetan eta moduetan sartzea.

Ikastetxe askotan izan badira mutil "desberdinak", futboleko aritzea edo kirola egitea gustuko ez dutenak, gainerako mutilekin liskar eta erronkarik nahi ez dutenak eta, orobat, gustu, zaletasun eta modu desberdinak dituztenak. Izaera eta nortasun sakoneko kasuak izan ezik, mutil horiek markaturik daude eta gainerako mutilek baztertzen dituzte.

NESKEN ETA MUTILEN ARTEKO HARREMANAK

Harremanetarako nagusi da eredu eta estilo maskulinoa, gorago aipatu duguna. Horrek zailtzen ditu mutilen eta nesken arteko berdintasunezko harreman egokiak. Emaiza, den kasurik onenean, "sexuen gerra" elikatzen duten genero-eredu tradizionalak dira:

- ▶ Neskek, oro har, esaten dute egoera honek ez duela konponbiderik. Uste dute ez duela ezertarako ere balio beren ikaskide mutilekin edo irakasleekin gai honi buruz mintzatzea. Uste dute "mutilek gehiegikeriak egiten dituztela", ez dela deus ere aldatuko eta horretan ahalegintzea denbora eta energia galtzea besterik ez dela. Haien iritziz, ez du merezi.
- ▶ Neska gehienek uste dute mutilekin ahaleginak egin daitezkeela, baina betiere bakarka. Bakarka hitz egin omen daiteke haiekin eta beste modu batean jardun, beste harreman eta konfiantza mota bat izan. Alabaina, taldean daudenean ezinezkoa da eta modu pribatuan nesken aurrean esandakoari edo konpromisoan hartutakoari uko egiten diote edo beste zerbait esaten dute beste mutil batzuen aurrean daudenean.
- ▶ Mutil gehienek diote "ez dagoela neskak ulertzerik", bitxiak direla eta edozein txantxaren aurrean haserretu egiten direla, ez dutela umore zantzurik ere, serioegiak direla...
- ▶ Mutil askok diote neskek "haiez paso egiten dutela", umemokotzat dituztela, oso gai desberdinez hitz egiten dutela, ez dutela bat egiten ez gustuetan ez interesetan, neska-lagunekin mutilez gaizki hitz egiten dutela, etab.

HARREMANAK ALARMA LARANJAN

Batzuetan, kasurik okerrenean, eredu maskulinoaren hegemonia nagusikeria eta oilarkeria bihur daitezke eta abusuaren eta tratu txarren lehen sintomak ager daitezke, irakasleengan arrisku eta alertargi laranja piztuko luketen arriskuzko egoerak:

- ▶ Neskei balioa kentzeko eta barregarri uzteko portaerak (barreak, zalantzako txantxak edo gustu txarrekoak, etengabeko esku-hartzeak eta eteteak, neskek parte hartzen dutenean etengabeko ohartxoak egitea, komentario "traketsak"... Neskak modu oldarkorrean ahoz erasotzea, iraintzea eta beldurraraztea.
- ▶ Neskek oso jarrera pasiboa izatea eta defentsiban jartzea; ia-ia hitz egiteari eta parte hartzeari uko egiten diete, baita euren lana ikasgelan azaltzeari ere... Gerta daiteke neska batzuk erabat uzkur geratzea, "mutu", hau da, beldurrez jendaurrean deus ere ez esateko ikaraturik egotea.

HEZTEA JOKABIDE ONETARAKO

Berdintasunerako heztea da jokabide onetarako heztea, gure ikasleek euren harremanak ezar ditzaten aniztasun pertsonaletik, berdintasunetik eta elkarrekiko errespetutik abiatu eta giza eskubideak horietan ezarri. Horretarako beharrezkoa da gure ikasleak, dela neska dela mutil:

- ▶ Emakumezkoetan zein gizonezkoetan dagoen aniztasun indibidual aberatsa bereganatzea, onartzea eta modu positiboan baloratzea eta aniztasuna babestu eta bultzatu beharreko altxor modura baloratzea.
- ▶ Pertsona, emakumezko eta gizonezko bakoitza errespetatzea, giza-ki modura balio, estatus, askatasun, duintasun eta eskubide berbe-

diren elikadurak, bizi motak, jardunak, imitatu beharreko eredu fisikoak eta aldaketek: kirurgia, tatuajeak, piercingak, oinetakoak, arropa... Oso diferentziak neskontzako eta mutilentzako.

Sexuaren arabera desberdintasun morfologiko eta funtzional berezkoek ez dute desberdintasunik sortzen eta justifikatzen. Gorputzari, gorputzarekiko loturari eta gorputzaren erabilerari dagokionez gainjarrita dauden genero etiketek nesken eta mutilen arteko harreman mota orotan bai eragiten dituztela desberdintasun handiak. Genero etiketek nesken eta mutilek gorputz mota desberdinak proposatu eta sortzen dituzte, neska eta mutil horien gorputzari berari eta gainerakoeneri buruz.

etiketarik gabeko gorputzak

Nahitaezkoa eta ezinbestekoa da gure ikasleei irakastea ondoko hauez jabetu behar dutela:

- Beren gorputzaz, beren ni-az, beren nortasunaz.
- Beren ezaugarri fisiko, pertsonal eta indibidualak.
- Gorputzak sentitzeko, adierazteko, jarduteko eta elkarrekin harremanetan jartzeko ematen dien aukerez.

Horretarako, neskekin eta mutilekin modu sistematiko eta programatuan erabili behar ditugu ariketa eta dinamika hauek:

- Gorputzari berari entzutekoak eta hartaz jabetzekoak. Auto-pertzepziokoak.
- Gorputza bera onartu eta errespetatzekoak. Autoestimua.
- Norbera zaintzekoak: elikadura, atsedena, ariketa fisikoa... Osasuna, autonomia eta erantzukizuna.
- Norberaren mugak eta banakoen potentzialitateak ezagutzekoak.
- Gorputz adierazpena. Hezkuntza emozionala. Norberaren presentzia.
- Gorputz hizkuntza, komunikazioa eta pertsonen arteko harremanak. Enpatia eta asertibotasuna.
- Gainerako gorputzak onartu eta errespetatzekoak. Afektuzko harremanak. Sexualitatea. Enpatia eta solidaritatea.

gorputzak eta harremanak

Gure nesken eta mutilen gorputzak handitu eta aldatzen dira. Gorputzek ongizatea eta ezinegona, osasuna eta eritasuna eragiten diete. Gainerakoen aurrean jarri eta aurkezten dituzte. Beren gorputzen bitartez bizitzako esparru guztietan **besteekin interakzionatzen dute, komunikatzen dute eta harremanetan jartzen dira:** familia, gizartea, eskola, lana, adiskidetasuna, maitasuna, sexua, ugalketa...

sentitu eta adierazi

Prozesu honetan gure ikasleak laguntzen baditugu **entzutearen** eta genero **etiketen desaktibazioaren** eta **berdintasunerako hezkuntza afektibosexualaren** bitartez, lagunduko ditugu gorputz osasuntsu batekin hazten, garapen integral bat izaten, autonomiaz bizitzen, presentzia fisiko baikorra izaten eta harreman atseginagoak izaten.

Afektuzko eta sentimenduzko hezkuntza, hezkidetzatik abiatu eta berdintasunerako, eta etiketarik gabeko adimen **emozionalaren berdintasunerako garapena** ezinbestekoak dira nesken eta mutilen, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harreman justu, osasuntsu, osasungarri eta egokiak ikasteko.

Sentimenduei dagozkien genero etiketek esaten digute eta lortzen dute...

- Neskek maitasuna, gozotasuna... sentitzea eta sentitu ahal izatea eta erakustea
- Mutilek gorrotoa, harrotasuna... sentitzea eta sentitu ahal izatea eta erakustea
- Neskek adierazitakoak soilik sentimenduzat hartzea; neskak sentimentalak, afektiboak... direla esan ohi da.
- Mutilek adierazitakoak, berriz, ez dira sentimenduzat hartzen; mutilak bihozgabeak, arrazionalak... dira

Hala ere, etiketen aurkako hezkidetzaren ikuspuntutik neskek zein mutilek ikas dezakete eta ikasi behar dute...:

- **Sentimendu** eta emozio **oro sentitzen, onartzen eta adierazten.**
- **Gainerakoen sentimenduak** onartzen eta **errespetatzen.**
- **Sentimenduek** neskengan, mutilengan eta gainerakoengan **sortzen dutena** onartzen eta baloratzen.

rak baititugu. Horrek esan nahi du pertsona horren bizitza proiektuak eta harremanak errespetatu behar direla eta, orobat, horiek aldatzeko eskubidea.

- ▶ Pertsona horren ezaugarri pertsonalak, sentimenduak, zaletasunak eta interesak ezagutzea, bere bizitza proiektua prestatzeko aukera izan dezan eta, bere nortasun eta autonomiatik abiatu, bere inguruko pertsonekin berdintasunerako harreman betegarriak ezartzea.

SENTIMENDUAK HEZTEA: GAIKIZI EDO ONGI SENTITZEA

Pertsonak eta harremanak ikaskuntzako prozesuaren gunean jarriz hezten badugu balioetan heziko dugu, hau da, sentimenduak, emozioak, afektuak, sexualitatea, etab. heziko ditugu. Nahi izan edo ez, kontzienteki edo ez, eginez edo egin gabe, etengabe hezten dugu eta balioak, jarrerak, jarduera-ereduak eta harremanetarako ereduak, afektuzko eta sexuzko erreferenteak, etab. transmititzen ditugu. Hobe kontzienteki egiten badu, geure buruari galdetuz zer, nola eta zertarako egiten dugun hori.

- ▶ Jakina; izatez, mutilak neskak bezain sentiberak dira. Neskek, izatez, ez dute mutilek baino sentimendu gehiago izaten edo sentimendu berberak intentsitate handiagoz izaten.
- ▶ Sozializazioari eta hezkuntzari esker neskek ikasten dute zenbait sentimendu agerian uzten, hala nola, samurtasuna, maitasuna, lasaitasuna, eskuzabaltasuna... eta mutilek beste sentimendu batzuk, hala nola, amorrua, gorrotoa, harrokeria, norberarengan dagoen konfiantza, nazka, urduritasuna, jakin-mina, balioa, oldarkortasuna... Neskek zein mutilek mozorrotzen, disimulatzen eta ezkututzen dituzte beste sexutik espero diren edo beste sexuari onartzen zaizkion sentimenduak.
- ▶ Neskek eta mutilek berdin ikas dezakete sentimendu berak identifikatzen, agertzen eta bideratzen.
- ▶ Neskek eta mutilek ikasi behar dute identifikatzen ongi edo gaizki sentiarazten dituzten jarduerak, jokabide onak ematen dizkieten harremanak eta tratu txarrak ematen dizkietenak, lehenetan behin eta berriz ahalegintzeko eta bigarrenetatik urruntzeko.

HARREMANAK AUKERATZEKO ETA ALDATZEKO ESKUBIDEA

Hezkidetzaren arabera neska eta mutil bakoitzak eskubidea du den bezalakoa izaten eta sexu bakoitzari gizarteak jarritako muga eta itxaropenen gainetik izan nahi duena izateko. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak berdintasunerako printzipioa bermatu eta garatzen du harremanetako esparruetan (gizartean, familian, lanean...).

- ▶ Pertsona bakoitzak eskubidea du bere bizitza proiektua egiteko eta bere harremanak aukeratzeko, eta eskubidea eta aukera du bere bizitza eraikitzeko eta nahi duenean aldatzeko.
- ▶ Pertsona bakoitzarena da proiektua eta harreman pertsonalak egin eta aldatzeko eskubidea, ez lagun taldearena, familiarena edo gizartearena. Emakumezko eta gizonezko bakoitzarena da.
- ▶ Harremanak soilik izanen dira positiboak berdintasunerako eta giza eskubideetarako, pertsonen eta bere bizitza proiektuen zerbitzura badaude eta ez alderantziz.

Hori guztia posible izanen da baldin eta gure neska-mutilak bizitzaren esparru guztietan beregainak izan daitezen hezten baditugu. Mendekotasunetik, garapen orekatu, oso eta beregainik gabe, oso zaila da pertsona bat askea izatea eta haren harremanak errespetuzkoak eta bizikidetzara osasuntsu eta positibokoak izatea.